

SB harrobira!

PARTE-HARTZE PROZESUA
SB harrobira!



HAUSNARKETA TAILERRAREN TXOSTENA
2018ko irailak 19



PARTE-HARTZE PROZESUA

SB harrobira!

HAUSNARKETA TAILERRAREN TXOSTENA

2018ko irailak 19

ERAGILEA:
Hernaniko Udala

LANTALDE TEKNIKOA:
RB3 Hiri Berrikuntza Integratua

DATA:
2018ko irailak 19

AURKIBIDEA

SARRERA

HAUSNARKETA TAILERRA

Helburua
Garapena
Emaizak

BISITA

HURRENGO URRATSA

uztailak 23

INFORMAZIO TAILERRA

irailak 05

EZAGUTZA TAILERRA

irailak 19

HAUSNARKETA TAILERRA

irailak 22

HARROBIRA BISITA

urriak 03

1 DELIBERAZIO TAILERRA

urriak 10

2 DELIBERAZIO TAILERRA

SARRERA

Hausnarketa tailerrarekin, Hernanin dauden parkeen azterketatik abiatuta, Santa Barbara mendiko harrobiko etorkizuneko Parkerako hurbilketa fasea abian jarri da.

Harrobia herri eta herritarrentzat berreskuratu eta berauei itzultzeko espazio bat bezala proposatzen da.

Lekuaren ezaugarri eta muga teknikoak aintzat hartuta, hein haundi batean egun dagoen aisialdi eta gozamenerako aukera hobetzeko eta kolektibo eta behar anitzei erantzuteko aukera bat.

Proposaturiko ibilbidean aurrera egiteko eta tokiko memoria eta historia balioan jarriko duen Parke inklusibo baten diseinua lortzeko, aztertu dira:

- Parkeak, dituzten behar eta eskaeren arabera, modu egokian zein kolektibori erantzun behar dien.
- Zer erabilera eta jarduerak erantzuten dien behar eta eskari anitzei.
- Etorkizuneko parkeak urte osoan zehar funtzionatzea zer erabilera eta jarduerak ahalbidetuko duten.

Guzti hau, garatuko diren proposamenen bideragarritasuna eta leku beraren izaera kontutan hartuta. Bere jatorrizko izaerarekin zer ikusirik ez duen ERAUZKETA JARDUERAK ZURITUTAKO NATURA ESPAZIO BAT.

Egin beharreko deliberazio ibilbidea ikusirik, interesgarria jotzen dugu, ditugun muga tekniko eta estrategikoak errepasatzea:

- Harrobiaren frontearen egonkortasunak, inguru naturala errespetatuz, basoaren erabilera seguru eta kalitatezko bat definitzearen garrantzia adierazten du.
- Betelanan lurzoruaren kontsolidazioa parke erabilerarako egokia da baina ez nahikoa beste erabilera batzuetarako edo eraikinak egiteko, bideragarriak diren erabileren aukerak mugatuz.

Harrobia guztiona da eta bere berreskuratetarako ere guztiontzat izan behar du.

Proposamen oro, Proiektu Tekniko batean jaso behar dena, duen izaera teknikoa dela eta zentzu horretan ebaluatuko dela gogora arazten da. Horregatik, prozesuko emaitzak epe motz-ertainean inplementatu daitezkeen, guzti hauek kontutan hartzea garrantzitsua da.

HAURNASKETA TAILERRA. Helburua

Bigarren Tailer honen helburu zehatza, Harrobiko espazioa zein kolektiborentzat berreskuratu eta inguru bizi batean eraldatu eta herritarrei bizi kalitatea eskaintzeko zein erabilera diren egokiak definitzea izan da. Helburu hau lortzeko eta proposatutako parte-hartzearen esparruan, aurreko lan saioaren emaitzak biltzearekin ekin da.

Dagoen parke sisteman “gabezia” edo “hobe daitekeena” bezala identifikaturiko kolektibo eta erabilerak hausnarketarako oinarri bezala hartu dira. Hortik abiatuta hauen berrikuspen bat eta herriko eskaintza hobetzeko etorkizuneko Harrobiko Parkeak izan ditzakeen erabileren ebaluaketa bat egin da. Ezagutza Tailerlean aipatutako kolektibo, erabilera eta gai orokorrak dira abiapuntua. Hauek hausnarketa sakon baterako oinarri bezala proposatu dira, berreskuratu nahi den espazioa eta honen ezaugarriak, potentzialtasunak eta mugak kontutan hartuta.

Aurre ezagutza guzti hau irailak 22ko aurre ikusitako bisitarekin zehaztuko da. Bisita hau Hausnarketa Tailerra eta ondorengo bi Deliberazio saioen arteko inflexio puntu bezala proposatzen da.



EMAITZAK. Ezaigutza Tailerra

kolektiboa

Gazteak
Familiak hurrekin
Adineko pertsonak
Pertsonak bakarka

erabilerak

Piknik guneak
Jolas aktiboak (elementu naturalak)
Zaintza guneak (edoskitzea, haur aldalekuak)
Txakurrentzako guneak
Ur presentzia (iturriak, elementu naturalak)

urtaroak

Estalitako guneak (finkoak edo aldi baterakoak)
Irekiera (barrutia izatea, ordutegiak)

ABIPUNTUA. Haurnasketa Tailerra

Santa Barbara harrobiko parkearen inguruan hausnartzeko elkarrizketan jardun
dialogando para reflexionar sobre el parque de la Cantero de Santa Bárbara

HAURNASKETA TAILERRA. Garapena

Prozesuaren ardura duen lantaldeak honako materiala prestatu du tailerrerako:

- Hausnarketa Matrizea. Hausnarketa orokorrerako gida den dokumentu honetan Ezagutza tailerreko emaitzak jaso dira, talde hausnarketa eta deliberazio prozesuarekin jarraitzeko oinarri bezala.
- Taldeka lan egiteko Matrizea. Orain arte lortutako emaitzak laburtu dira bertan. Hau da Santa Barbara mendiko etorkizuneko Harrobiko Parkean aproposak diren kolektibo, erabilera eta jarduerak definitzeko oinarria.

Ondorengoak egin dira:

- Lan saioaren aurkezpen motz bat burutu da.

Ibilbide global bat dela azpimarratu da, non etapa bakoitza, espero diren emaitzak lortzeko inflexio puntu den. Beraz, ibilbidea osotasunean ezagutzea eta saio bakoitzeko emaitzak hurrengo lan saioaren abiapuntua izango direla gogoratzea oso garrantzitsua da.

- Proposaturiko dinamika eta denborak azaldu dira.
- Partaideek azaldutako zalantzei ere erantzun zaie.

Taldeka proposaturiko gaien inguruan hausnarketa bat burutu. Herriko egungo parke sisteman erantzun egokirik ez duten eta Parke berriak erantzun egokia bat eman dezaketen kolektibo, erabilera eta jarduerak.

Lan saioaren itxiera moduan, batera jartze lan bat burutu da. Talde bakoitzak hausnartutakoa azaldu du. Bertako emaitzak ondoko txostenean itzuli eta Hausnarketa Matrizean jasoko dira, beti ere jarraituko dugun ibilbideko oinarri bezala.

Guztion interesei erantzuteko gai den aldetara bideratutako Elkarrizketa pluraleko ibilbide bat.


SB harrobira! HAUSNARKETA TAILERRA | TALLER DE REFLEXIÓN

kolektiboak colectivos	erabilera usos	urtaroak estaciones
<p>Gaitzak</p> <p>Territoki haurrekin</p> <p>Adinako pertsonak</p> <p>Pertsonak bakarrik</p> <p>Azkenak</p> <p>Familia konplexuak</p> <p>Personak inguruko</p> <p>Personak adineko</p>	<p>Pisik guneak</p> <p>Joko-jarduerak (elementu naturalak)</p> <p>Zustia guneak (jardoketara, heur-aldaketak)</p> <p>Talderentzako guneak</p> <p>Udaren elementuak (gaitzak, elementu naturalak)</p> <p>Zona de Picnic</p> <p>Argazki aktiboak (elementu naturalak)</p> <p>Zona para tener de colada (sifonak, cambio de bebida)</p> <p>Zona para perros</p> <p>Presencia del agua (sumidero, elementos naturales)</p>	<p>Estaliko guneak (finak edo aldi baterakoak)</p> <p>Irakurleak (berritzaileak, ordiratzaileak)</p> <p>Zona colada (fla o temporari)</p> <p>Abertza (presencia de viento, bofetada)</p>
kolektiboak colectivos	erabilera usos	urtaroak estaciones

SB harrobira! HERNANI

LAN MATRIZEA

- KOLEKTIBOAK
- ERABILERA
- URTAROAK
- COLECTIVOS
- USOS
- ESTACIONES




LAN TALDEAK 4

- BATERA JARTZEA
- PUESTA EN COMÚN



HAURNASKETA TAILERRA. Garapena



EMAITZAK

Emaitzak xehetasunez adierazten hasi aurretik garrantzitsua kontsideratzen da kontu bat argitzea.

Lantalde batean erabilera bezala arauzko futbol zelai bat proposatu da. Tailerrean aipatu da, baina txosten honetan ere azpimarratu nahi da erabilera hau ez dela etorkizuneko Parkearekin bateragarria, izan ere hasera batetatik gai hau dugu mugetako bat. Emaitzak bideragarriak izan eta hauek inplementatzea nahi badugu Hausnarketa eta Deliberazio prozesuan kontutan izan behar ditugu muga hauek.

Lekuko Administrazioetik halako erabilerak hasieratik baztertu dira, uztaileak 23ko lehen informazio saioan aipatu zen moduan.

Saio bakoitzean aipatu den moduan, muga hauek, eraikin berriak egiteko ezintasunarekin batera, gure abiapuntua dira.

Batera burutzen ari garen prozesuaren arrakastarako kontutan hartzea komeni zaigu.

Azaldutako guztiagatik, erabilera zehatz hau ezin da emaitza bezala jaso, eta etorkizuneko hausnarketetatik kanpo geratuko da.


LURRAREN KONTSOLIDAZIOA

KONPLEXUTASUNA

ANIZTASUNA

NATURA





EMAITZAK

Oro har, lortutako emaitzek lortu nahi diren helburu zehatzak modu egokian bete dituztela kontsideratzen da. Etorkizuneko Parkerako erabilera anitzak profilatuta dira, hauetariko askok esku-hartze estrategiak adierazi eta etorkizuneko proiektu teknikoak zuzendu beharko duen ikuspegia profilatzen dute.

Kolektiboek dagokionez, etorkizuneko parkea, eskakizun eta erabilera modu anitzek erantzuteko modu armonikoan ezartzen diren gune ezberdinez osatu daitezkeela kontsideratzen da.

Espazioak kolektibo guztientzat izan behar du. Zentzu honetan, aurreko saioko emaitzei ñabardura batzuk egiten zaizkio:

- Gazteetan adin bereizketa bat egiten da (10-14 urte bitartekoak eta 14-17 bitartekoak), hauen eskakizunak modu esanguratsuan aldatzen direla kontsideratuz eta herri mailan kolektibo hauentzako dauden gabeziak egiaztatuta.
- Menpekotasuna edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak gehituz.
- Kirolariak, zentzu orokorrean, gehituz.

Etorkizuneko diseinuari dagokionez, herritarrek galdutako paisaia berreskuratuko duen espazio natural bat eskatzen dute, aisialdi eta kultura hartu-eman aktibo bat ezarri, beti ere, ingurumenarekin modu errespetutsuan.

Paisaia alorrei dagokionez, ondorengoak aipatu dira:

- Parkea kontenplazioarako eta aisialdirako inguru lasai bat izatea.
- Bertako landaretza berreskuratzea, fruitu arbolekin integratuz.
- Magaleko paretak teknika naturalekin egonkortzea.
- Berroneraketa naturaleko prozesu bat egotea eta ura paisaia elementu gisa (putzua) eta gozamen (bainua) gisara erabiltzea.
- Gunearen mantenurako ardi edo ahuntzak bezalako animaliak erabiltzea.
- Argi kutsadura ekiditea, ez soilik ingurumen arrazoiengatik, natura beraren gozamina indartzeko baizik.
- Estrategia orokor gisa, energia berriztagarriak erabiltzea.

EMAITZAK

Esparru orokor honen barruan erabilera zehatzagoak adierazten dira:

- Jolaserako zurezko elementuak (zubiak etab.) dituzten gunek
- Piknik mahaiak eta jolaserako mahaiak (xake etab) dauden gunek.
- Bike Park eta ziklokross gunea.
- Egokitutako parke gune bat.
- Estalitako gunek.
- Ikuskizun, kontzertu eta bestelako jardueretako anfiteatro bat.

Gozamena, kultura eta ikaskuntzaren alde egin eta ikuspegi pedagogikoa duten beste erabilera batzuk gehitzen dira:

- Lorategi botaniko eta zentzumen lorategi gunek.
- Astronomiarekin lotutako gunek, izarren behaketa etab.
- Espazio kultural bat, Harrobiaren memoria eta historia gai hartuta.

Amaitzeko esku-hartze zehatzagoak proposatzen dira:

- Aintziratik eta Agerretik dagoen sarbidea berreskuratu.
- Seinaleztapen proiektuak onartu, erabiltzaileak etorkizuneko Parkeko gune ezberdinen artean gidatuko dituen Seinaleztapen ez inbaditzailea.
- Karabanentzako aparkaleku eta gune txiki bat txertatu.


KOLEKTIBO ANITZAK

JOLASA | KIROLA

GOZAMENA | KONTENPLAZIOA

PAISAIA NATURALA

KULTURA | MEMORIA



UNAS REFERENCIAS



EMAITZAK

Amaitzeko, eskalatzeko gune estali bat iradokitzen da. Ez da argitu Harrobiko paretan kokatzea proposatzen den. Kasu horretan fronte osoaren egonkortasunak ezartzen duen mugagatik sakontasunean aztertu beharko litzateke. Erabilera zehatz hau ezartzeko beste ideia batzuk planteatu daitezke.

Jasotako erabilerak biltzerakoan partaideek beste lekuetako erreferentziak aipatu dituzte.

Aukerak bisualizatzeko ariketa egokia dela kontsideratzen dugu. Horregatik erreferentzia hauek eta beste hainbat bilduko dira deliberazio faserako lagungarri izango baitira.

la partaide guztiek azpimarratzen dute parkea, urte sasoiak aparte utzita, urte guztian zehar erabilgarri izatearen garrantzia. Helburu hau lortzeko, proposaturiko erabilerak oinarri interesgarria dira.

Hirugarren topaketa honetan guztira 15 partaide izan dira, 5 emakumezko eta 10 gizonezko, genero ordezkaparrtasunean hobekuntza bat markatuz. Gazteen partaidetzaren inguruan ez da aldaketarik egon, nahiz eta Tokiko Administrazioaren eskutik kolektibo honi zuzendutako komunikazio zehatza egon.



BISITA

Santa Barbara mendiko Harrobiko espazioaren bisitan 18 pertsonen parte hartu dute. Hauetako batzuk unera arte buruturiko prozesuaren fasean egon gabekoak dira. Bisitak, garatzeko dagoen prozesuan parte hartzen gehitzera animatzea espero dugu, Deliberazio fasea.

Bisita aurre ikusi baina ordu erdi beranduago hasi da, espazioaren irekiera ardura duen eragileekin izandako komunikazio arazo bat medio. Partaideetako batzuen laguntza aktiboari eta udaltzaingoari esker sartzea lortu da.

Bisitak ordu eta laurden inguruko iraupena izan du eta tokiko Administrazioarekin lankidetzan planteaturiko ibilbidea jarraitu da.

Prozesuaren ardura duen lantaldeak espazioaren inguruko oinarritzko informazioa duen plano bat eman dio partaide bakoitzari. Bertan espazioaren neurri nagusiak, betelan eremua, esku-hartze eremua eta bisitarako proposaturiko ibilbidea adierazten dira.

Bisitaren abiapuntuko helburua bete dela kontsideratzen da. Alegia, Harrobiko espazioaren zuzeneko pertzepzioa izatea, proposaturiko erabileren inguruan hausnartzen jarraitzeko oinarri bezala eta esku-hartze zehatzagoak definitzeko eta lekutzeko helburuaz.

Geratzen zaizkigun bi lan saioetan egin beharreko lana.





HURRENGO URRATSA

Hausnarketa Tailerreko emaitzetatik abiatuta, hurrengo lan saioan esku-hartze proposamenak definitzeari ekingo diogu. Lanean gabiltzan esparruaren barruan zehatzak eta bideragarriak diren esku-hartzeak.

Birpentsatu beharreko espaziorako bisitak, lehen proposamen hauek kalitatezkoak eta berriro diogu bideragarriak izateko beharrezko ezagutza emango digu.

Hau da, **kalitatezko proiektu tekniko bat garatzeko eta taldean deliberatutakoari erantzuteko oinarri sendoak finkatuko dituztenak.**

PROPOSAMENAK

KOKAPENA

BIDERAGARRITASUNA

LEHENTASUNAK

facebook

RB3 Innovación Urbana Integrada

taldea@rb3innovacion.com

R3 regenerar
renovar
repensar
birsortu
berritu
berbizi
INNOVACIÓN URBANA INTEGRADA

www.rb3innovacion.com